



2023ko irailaren 28an egindako osoko bilkuran, Zarauzko Udalbatzarrak erabaki zuen honako ordenantza aldaketei hasierako onespena ematea:

- ABENDAÑO ETA ERROTABERRI INDUSTRIALDETAKO PLAN PARTZIALAREN HIRIGINTZA-ORDENANTZEN ALDAKETA PUNTUALA, OSTALARITZAKO ERABILERA JAKIN BATZUK BAIMENDU AHAL IZATEKO.

Jendaurrean jartzeko epea amaitu da, alegaziorik egon gabe. Hori horrela, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, behin betiko onartuta geratutako testua argitaratzen da.

Erabakiak amaiera ematen dio administrazio-bideari. Horren aurka ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA aurkeztu ahal izango da: Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, BI HILABETEKO epean, iragarkia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita; egoki iritzitako beste edozein errekurtsu jartzeari utzi gabe.

Aplikatzekoa den legeria: azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua) 116. eta 117. artikuluetan; eta uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzitarako Eskumena arautzen duena, 46. artikuluan xedatutakoa.